

Historiaren istorioak

Aristotelesen lehen hitzak, *Nikomanorentzako etika* liburuan, hauexek dira: “Badirudi arte orok eta ikerketa orok –eta, era berean, ekintza orok eta hautapen orok– ongi jakin baterako joera dutela”.

Etikaz eta moralaz arduraturik gabiltza azken artikuluetan, lagunak. Gai sakonak eta labainkorrak. Historiari lotuak, istorioei. Eztabaidarako aldarria egin duzu, Juanjo. Gure bidean darabiltzagun makilak erreko ote zaizkigun beldur zara, Ur.

Zentzurik gabea da zientzia matematikoe-tan exijitzen dugun irmotasun –eta segurtasun– maila eskatzea etikari buruzko ikerketa eta eztabaida irekian. Etikaren beraren objektuaren izaera eta ezaugarriak ikusita, poztu beharrean izango gara gai etikoak baldin eta trakets eta zirriki-marraka argitzen asmatzen badugu. Ez baita gutxi luizi horretatik oinetakoak galdu barik ateratzea.

* * *

Giza bizitzaz arduratzen da etika. Ezaguna da hori. Baina, gizakia eta bizitza ez dira bat eta bera han eta hemen. Jaio eta hil egiten dira gizakiak, jaio eta hil egiten dituzte gizakiak.

Jaiotzeak eta hiltzeak berdintzen gaitu denak. Ez, aldiz, bizitzeak. Arnasa jasotzen dugu denek lehenbizikoz jaiotzean, eta hura entregatzen, hiltzean. Hori, denek berdin.

Baina bizitzan, *tempus* desberdinean hartzen dugu arnasa. Nork bere erara. Bere beharren arabera. Bere interesen arabera... Ahal dugun moduan. Besteek uzten diguten moduan.

Ongiaren definizio eternorik ba ote den galdetzen diot nire buruari. Ongiaren definizio perfekturik ba ote dagoen. Gainera, ba ote dagoen praxi humanorik ongia absolutu hori mamitzeko eta garatzeko; han eta hemen, gaur eta bihar. Eta, dar-dar egiten didate belaunek.



J. I. Basterritzea

Olasagarre

Apalategi

Ezer izatekotan, *praxia* da bizitza. Teoria bainoago. Bizitza da bizitzaren helburua. Hori lortzeko bidea argitu behar liguke etikak.

* * *

Erlatibotasun historikoan itotzen omen da diskurtso moralak. Han eta hemen. Atzo, gaur eta bihar.

Erlatibotasunaren metafora gisa, historiari buruz entzun ditudan definizio zirraragarrien arteko bat da honako hau: odoloste bat da (historia), mahaiaren inguruan eserita, mahai-kide bakoitzak bere pusketa ahoratu zain. Etika, mahai horretako ogi-opila ote den nago, lukainka bultzatzeko.

Etikaren lan erlatiboek erotzen gaituzte. Eta, duda-muden frenesi horretan, lizundu egiten zaizkigu Historiaren istorioak.

Zeren, inoren mina eta heriotza eragitea, etikoa al da? Zeren, ongia bilatze iraunkorraren baitan, desiragarria al daiteke inoren gaizkia?

Zeren edo noren ongia bilatzen du demokraziaren praxi moderno eta mendebaldar gorentzat joa izan den hauteskundeetatik erkidego politiko eta ideologiko esanguratsuak prozesutik erauzteak?

Eta, batzuek ezin dutela, etikoa al da gainerakoak aurkeztea? Hauteskundeotara.

Aztura bat da bertute etikoak. Eta, aztura bera da, izan, modu jakin batean jokatzeko joera bat, ekintzak burutzeko joera jakina.

Dagozkien ekintza etikoak errepikatuz jasotzen dira bertute etikoak. Zuhurtasunez jokatuz ikasten da zuhurra izaten. Ekintza ausartak eginez ausarta izaten. Justizia, hartara, ongia jomuga dituen justiziazko ekintzak praktikatzu bihurtuko da bertutekoa.

Lagunak, bertutea lema, helburu jaso eta gorenak aztura etikoaren esparruaren baitako surtan probatzen hasteko uhina ez al da oraindik heldu? ■



Zeren edo noren ongia bilatzen du

demokraziaren praxi moderno eta mendebaldar

gorentzat joa izan den hauteskundeetatik erkidego

politiko eta ideologiko esanguratsuak prozesutik erauzteak?

